

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Agindua 645/2025, abenduaren 16koa. Hasierako onespena ematea Asparreneko udalerriko 2 poligonoko 415 lurzatian, zeina lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta baitago, ibilgailuentzako aparkalekua eta jolas eremua egiteko proiektuaren interes publikoaren adierazpen espedienteari

Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak Lezeko atse-dengunea birmoldatzea aurreikusi du, Aizkorri-Arazko parke naturalean, erabiltzaileen kopurua handitzeak ingurune horretan eragiten duen andeapena geldiarazteko. Eremu horretara A-3012 errepidetik sartzen da, Venta del Patiotik Eginora, eta, ondoren, La Leze Bide gisa identifikatutako nekazaritza bide batetik; bide horretatik, Vitoria-Gasteiz eta Eginoko lotzen dituen bizikleta bidea ere igarotzen da. Izan ere, gaur egungo aparkalekuak ez dira nahikoa gero eta bisitari gehiago hartzeko. Hori dela eta, bisitariak beren ibilgailuak aparkatzen dituzte horretarako egokitu gabeko eremu naturalean, eta horrek ingurunea hondatzea dakar, eta horixe konpondu nahi da.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiak aparkaleku berri baterako proiektua egin du, eta, horretarako, Asparreneko udalerriko 2 poligonoko 415 zenbakiko katastro lurzatia eskuratu du, lurzoru urbanizaezinean sailkatua, 8.120 m²-ko azalera duena, baina ez da osorik okupatuko.

Lurzati horretan 83 aparkaleku plaza egongo dira, eta horietatik 3 mugikortasun urriko pertsonentzat gordeta egongo dira, 5 autokarabanentzat eta 2 autobusentzat, eta horrek 4.961,14 m² okupatzea ekarriko du. Plazetako bik 22 kW-ko potentzia duten ibilgailuak elektrikoki kargatzeko puntu bana izango dute, eta bizikleta elektrikoak kargatzeko puntu bat ere instalatuko da, baita horiek konpontzeko totem bat ere; gainera, bizikleta aparkalekuak, piknik motako eserlekuak dituzten mahaia, paperontziak eta informazio panel bat izango dira bertan.

Asparreneko Udalak espediente bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Eskaerarekin batera, udal arkitektoak egindako txostena aurkeztu da. Txosten horretan adierazten denez, lurzati hori lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago, eta natura balioa duen eremu baten kalifikazio xehatua du (J.11). Asparreneko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) 1.6.1.2.c) artikulua arabera, "HAPOren ingurumen memorian ezarritakoari jarraikiz, Aizkorri-Aratz parke naturaleko bisitariantzako erabilera publikoko azpiegiturak jar daitezke, kontuan hartuta ingurune hartako ondare naturala zaindu eta babestu behar dela; azpiegitura horiek, betiere, ingurumen arloan eskumena duen foru organoaren aldeko txostena eduki behar dute".

Txostenak honela jarraitzen du: "Beraz, Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak planteatutako proposamena bateragarria da Asparreneko HAPOko zehaztapenekin". Hala ere, Arabako Foru Aldundiak honako hauek egin beharko ditu: lurzoru urbanizaezinean jarduketak egiteko interes publikoaren adierazpena, Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren aldez aurreko baimena ustezko zona arkeologikoan egin beharreko lanen kokapenagatik, eta Nekazaritza Sailaren aldeko txostena, obrak egiteko erabilitako ibilgailuak eraginpeko landa bideetatik igarotzea baimentzen duena. Era berean, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aldez aurreko baimena eskatu beharko da, obrak Lotabarri ibaiko uren zaintza zonan baitaude.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lurralde Oreekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espediente ebazteko, bat etorri Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoarekin.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzorian, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduerak eta erabilerak batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira".

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizazinean ezingo dira gauzatu "aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Aztertutako kasuan, hasierako onespenez izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horrenbestez, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespenez ematea Asparreneko udalerriko 2 poligonoko 415 lurzorian, zeina lurzoru urbanizazinean gisa sailkatuta baitago, ibilgailuentzako aparkalekua eta jolas eremua egiteko proiektuaren interes publikoaren adierazpen espedienteari.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeiei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek eskura dute espedientea, aztertu ahal izateko, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren bulegoetan, jendea atenditzeko ordutegian, eta web orrian Interes publikoaren adierazpenak - araba.

Hirugarrena. Foru agindu honek izapide egintza ez-kualifikatuaren izaera du, eta beronen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 16a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA